

4. Misioa, Bisioa, Balioak eta Gaitasunak

4.1.- Misioa

AGINTZARI Gizarte Ekimenerako Enpresa Kooperatiboa da. Sektore psikosozialean eta gizarte hezkuntzakoan integratuta dago eta konponbide integralak bideratzen ditu haurtzaroko, gazteen eta familiaren egoera zailetan.

Gure kooperatiba izaeraren oinarriak hauek dira: pertsonak (horiek dira gure interesaren eta arretaren ardatz), laguntza eta elkarlana, eta gizartearekiko elkartasuna. Gure nortasunaren eta berezitasunaren ezaugarriak dira.

Gure misioa eta izatearen arrazoia honako hau da: erabiltzaile eta bezeroei –instituzionalak eta pribatuak– proposamen aurreratuak eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzea, modu horretan, egoera zaila pairatzen duten pertsonen bizi kalitatea hobetzen laguntzeko, bezeroen misioa garatzen laguntzeko, eta gizarte bidezkoagoa eta aniztasunean batuago egongo dena sustatzeko. Hori guztia lortzeko gure enpresa jardueraren oinarriak finkatu ditugu:

- Pertsona da gure jardueraren ardatza, eta gure kezka eta lehentasunezko helburua erabiltzaileei arreta berezia eta pertsonalizatua eskaintzea.
- Gure bezeroekiko elkarlan iraunkorra, eta haiei erantzun berritzaileak, eraginkorrak eta arinak eskaintzea.
- Gure konpromisoak betetzea eta egonkortasuna ziurtatzea, gure elkartasuneko enpresa egituraren oinarrituta.
- Gure zerbitzuen kalitatea eta etengabeko garapena bultzatzea. Hauek dira zerbitzuon funtsa: Ikerkuntza, Berrikuntza eta Agintzari osatzen dugun guztion aldetik –Bezero, Erabiltzaile, Laguntzaile eta Profesionalak– Ezagutzaren kudeaketa aktiboa.
- AGINTZARI osatzen duten kideen gogobetetzea eta garapen profesionala sustatzea. Hori ezinbestekoa da gure esku hartze eta zerbitzuen eraginkortasuna, profesionaltasuna eta kalitatea bermatzeko.
- Gure konpromisoaren bermea hauek dira: erabateko kalitatean eta lehiakortasunaren hobekuntzan oinarritutako kudeaketa sistema, eta gure merkatuan benetako lidergo parte hartzailea izatea.

Modu horretan hauxe lortu nahi dugu:

- Gure erabiltzaile eta bezeroak gogobetetzea eta Agintzarirekin lanean jarraitzea.
- Gure bezeroen xede eta helburuak betetzea.
- Bazkideen eta langileen inplikazio aktiboa Agintzariren proiektuan eta horri balioa eranstea.